



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

**BIDEO EKOIZPENA ETA OSOKO BILKURAREN ETA
BATZORDEEN ZERBITZURAKO EKIPOEN KUDEAKETA
ESLEITZEKO KONTRATAZIOA**





BIDEO EKOIZPENA ETA OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN ZERBITZURAKO
EKIPOEN KUDEAKETA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATAZEKO KLAUSULA
TEKNIKOEN AGIRIA

- 1.- AURREKARIAK
 - 2.- KONTRATUAREN XEDEA
 - 3.- LANEN NONDIK NORAKOAK
 4. KONTRATUAREN IRAUPENA
 - 5.- ZERBITZUAREN GARAPENA
 - 6.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK
 - 7.- LANEN ORDAINKETA
1. ERANSKINA: KONTRATUAREN XEDE DIREN EKIPO ETA INSTALAZIOAK
 2. ERANSKINA: LAN PROZEDURAK





1. AURREKARIAK

Eusko Legebiltzarrak osoko bilkuraren eta batzordeen zerbitzura dagoen ikus-entzunezko ekipo osoa dauka. Osoko Bilkuren aretoan eta hiru batzorde-aretoetan kalitate oneko instalazio fidagarriak daude. Soinua eta bideoa emateko eta grabatzeko pentsatuta daude. Osoko bilkurako ekipamendua batzorde-aretoetakoa baino hobea bada ere, lan egiteko era berdina da bietan, eta horrek erabilera eta zaintza errazten ditu. Gainera, eraikinaren aretoetan, gela teknikoetan, prentsa-aretoan eta gainerakoetan komunikabideentzako ekipamendua ere badago.

Proposatutako lehiaketa honek ekipo eta instalazioen mantentze-lanak ditu helburu, bai eta osoko bilkuren eta batzordeen ikus-entzunezko grabazioak ere.

Erantzukizun handiko lana da, gizarte mailan eta hedabideetan oihartzuna duen euskal legegintza-erakundearen gauzatu beharrekoa delako. Sortzen den audio-seinalea bakarra da eta bideo-seinalea telebista-kate guztientzako funtsezko seinale-iturria da, erakundeak seinaleari ematen dion barne erabilera alde batera utzita.

Soinuaren ekoizpenaren funtsezko gunea BOSCHen DCN konferentzia-sistemen bidez egiten da, eta horrekin batera ondoko prestazioak eskaintzen dira: aldi bereko itzulpena, identifikazio-txipa duten txarteekin egiten den botazio elektronikoa, haririk gabeko itzulpena eta megafonia.

Bideoaren ekoizpena 3CCD txipdun kamerekin egiten da; kamera horiek robotizatutako urruneko sistema batek kontrolatuta daude beti. Sortutako seinalea, behar bezala nahastu eta tituluak jarrita, aurretik zehaztu denaren arabera zabalitzen da.

Gainera, batzorde-aretoek audio eta bideoa aurkezpenak egiteko proiektzioa ere badute.

Iturri guztiak hainbat helburutara konekta daitezke konmutazio-matrizeak baliatuz.

Grabazio-sistema informatizatuak ere badaude, eta horiek kudeatu beharra dago.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen helburua da ikus-entzunezko ekipo eta instalazioen erabiltze- eta mantentze-lanak garatzeko kontratuaren esleipena jasoko duen enpresak, bere jardunaren esparruan erabili beharko dituen espezifikazio teknikoak zehaztea. Eta orobat, ekipamenduaren funtzionamenduaren bermerik handiena zehaztea, horien etengabeko eskuragarritasuna lortze aldera, betiere, proiektatutako prestazio-maila mantenduz eta ustiaketa-kostua arrazionala delarik.

3. LANEN NONDIK NORAKOAK

3.1 Ekipoen erabilera eta ustiapena. Osoko bilkura eta batzordeetarako beharrezkoak diren lanpostu guztien deskribapenekin bat egin beharko du.





3.1.1 Osoko bilkuretan bete behar diren lanpostuen deskribapena

Kamera-operadorea. Kameren mugimenduez, enkoadratzeaz eta fokuratzeaz arduratuko da. Eskura izango ditu Radamec markako *ARC* aginte bat, zeinak kamerak hautatzeko *joystick* eta botoiak, eta mugimendu- zein kokapen-memoria baititu. Horiez gain, bi kamerari eragiten dien Sony markako beste robotika-mahai bat du, hautaketarako *joystick* eta botoiak dituena.

Errealizadorea Kameren seinalea nahastuko du, kamera-operadorearen lana zuzenduko, bai eta Pinnade System Deko550 markako idazkun-makina kudeatu ere.

Aretoko operadorea. Hitz-eskaerak kontrolatu eta ahalbidetuko ditu. Aretoa zuzenean ikus dezakeenez, kamera-operadoreari aretoan gertatzen diren gorabeheren berri emango dio kamerek horiek erregistra ditzaten. Bosch DCN sistemako software guztia kudeatuko du. Aretoko eta grabazioetako audioa kontrolatuko du. Bilkura bakoitzeko fitxategiak sortu, zerrendak inprimatu eta lehendakaritzaren aurkezpen-pantailak konmutatuko ditu. Sistema sakonki ezagutu beharko du, DCN sistemaren inguruan gerta litezkeen ezusteko teknikoak azkar konpondu ahal izateko. DCNaren euskarri diren presentzia-, botazio- eta lehendakaritza-ordenagailuak ere kudeatu beharko ditu.

Zuzendaritza teknikoa eta mantentze-lanena. Kabinako zein instalazio orokorreko ekipamendu guztiaren funtzionamendua ikuskatu beharko du. Lanpostu guztiei laguntza ematen die (atsedenaldiak eta abar). Grabazio-ekipoak martxan jarriko ditu; grabatuko diren bideo-euskarriak aldatu, ikuskatu eta etiketatuko ditu. Gorabeheren berri emango dio Mantenimendu Zerbitzuari, horiek konpon ditzan. Deskribatutako ekipoko edozein kide ordezkatzeko besteko polibalentzia izango du. Bilkuran zehar, eskatzen zaizkion grabazioak egingo ditu eskura dituen baliabide teknikoak erabiliz. Unean uneko beharren arabera, irudia eta audioa bideratuko ditu.

3.1.2. Batzorde eta lantaldeetan bete behar diren lanpostuen deskribapena

Kamera-operadorea. Kameren mugimenduez, enkoadratzeaz eta fokuratzeaz arduratuko da. Eskura izango ditu Radamec markako *ARC* aginte bat, zeinak kamerak hautatzeko *joystick* eta botoiak, eta mugimendu- zein kokapen-memoria baititu.

Zuzendaritza teknikoa eta mantentze-lanena. Kabinako zein instalazio orokorreko ekipamendu guztiaren funtzionamendua ikuskatu beharko du. Sistema sakonki ezagutu beharko du gerta litezkeen ezusteko teknikoak azkar konpondu ahal izateko. Operadoreari lagunduko dio (atsedenaldiak eta abar). Bideokaseteak martxan jarri, aldatu, ikuskatu eta etiketatuko ditu. Gorabeheren berri emango dio Mantenimendu Zerbitzuari, horiek konpon ditzan. Aretoko beharrei erantzungo die gerta litezkeen gorabehera teknikoetan, proiektzioak egiteko konexioen inguruko beharrak direnean eta abarretan. Bilkuran zehar, eskatzen zaizkion grabazioak egingo ditu eskura dituen baliabide teknikoak erabiliz. Eskura dauden euskarri bideografikoetan guzti-guztia erregistratzeko ardurua izango du, bai eta ondoren grabazio horiek dagozkien sailalara bidaltzeko ardurua ere.

3.1.3 Bilkuren aurretiko eta osteko lanak. Bilkura egin aurretik ekipoen funtzionamendua egokia aztertuko da, hala kabinan nola aretoetan, horretarako behar diren probak eginez. Konmutazio-matrizeak manipulatu egingo dira seinalea hainbat helburutara bideratzeko. Helburu diren horietan (prentsa-aretoak, palkoak eta abar) ekipoak piztu egingo dira eta horien funtzionamendua, denboraz egiaztatuko da. Agerraldietako beharrei erantzungo zaie, proiektzioei, konexioei eta abarrei dagokienez. Bilkurak amaitzean, kontrako noranzkoan, den-dena behar bezala itxita eta itzalita dagoela ziurtatuko da. Bilkura hasi baino ordu erdi lehenago, ekipamendu osoak eraginkor egon beharko du % 100ean.





3.2 Ikus-entzunezko instalazioen mantentze-lanak. Prebentziozko eta zuzentzeko mantentze-lanetarako aurreikusitako jarduera-planaren arabera jardun beharra izango da, 1. eranskinean zehazten diren instalatutako ekipoei dagokienean.

Esleipena jasoko duen enpresak aseguratu edo bere ardurapeko asegurua egin beharko du, 1. eranskinean zehaztutako instalazio tekniko gutzietan dagokienez, ondoko prestazioak jasoz:

- o Instalazioen erabilera eta zaintza.
- o Prebentziozko mantentze sistematikoa.
- o Zuzentzeko mantenimendua
- o 48 orduko zerbitzua.
- o Ordezko piezak.
- o Mantentze-lanetako dokumentuak.
- o Hirugarrenek egindako konponketak edo zerbitzu tekniko ofizialetan egindakoak.

3.2.1 Instalazioen erabilera eta zaintza.

Produktuak erakundearen eta seinalea jasotzen duten telebista-kateen eskakizunak bete ditzen, baliabideen errendimendurik onena bilatzen da.

3.2.2 Prebentziozko mantentze sistematikoa.

Esleipena jasoko duen enpresak urtean bi azterketa oso egin beharko ditu, irailaren eta urtarrilaren hasieran. Horrez gain, osoko bilkura guztien bezperako egunetan ekipoa prestatu beharko du, botazio-probak, megafonia, entzungailu pertsonalizatuak jarri (entzungailuak bilkuraren amaieran batu beharko dira), ahaztutako txartelak jaso eta abar, betiere, esleipena jasoko duen enpresari emango zaizkion lan-prozedurekin bat eginez.

3.2.3 Zuzentzeko mantentze-lanak.

Irregularitasuna sumatuta, hori konpontzeko arreta handiena jarriko dute, eta erakundearen Mantenimendu Zerbitzuari idatziz jakinaraziko diote konpontze-estrategia planifikatzeko.

3.2.3 48 orduko zerbitzua.

Ordezko piezak eskuratu direnean, gehienez ere 48 orduko epean egin behar da konponketa, larunbat eta jai-egunak barne.

3.2.4 Ordezko piezak.

Ekipoak geldirik dauden denborak mugatzeko, Legebiltzarrak ordezko materialen stock bat dauka. Esleipena jasoko duen enpresak Eusko Legebiltzarrari aholkularitza emango dio, instalazioaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa den material-bilketa definitzean.

3.2.5 Mantentze-lanetako dokumentuak.

Esleipena lortzen duen enpresak egunkari bat izango du egunean, eta bertan jasoko ditu:

- Prebentziozko mantentze-jarduera sistematikoak.
- Zuzenketa-ekintzak.
- Egindako aldaketa eta hobekuntzak.





Egindako neurketen emaitzak.

Lan bakoitzari dagokionez, ondokoak aipatuko dira:

- data;
- lan-mota;
- egindako pieza-ordezkapenak;
- lana egiteko erabilitako lan-ordu kopurua; eta
- dagozkion oharrak.

OHARRAK:

Esleipena jasoko duen enpresak izango duen hasierako dokumentazio teknikoa, Eusko Legebiltzarrak emandakoa, ondokoa izango da:

- Ikus-entzunezko instalazioa osatzen duten instalazio guztien memoria deskriptiboa
- Hainbat lani arreta emateko prozesuen eskuliburuak.
- Instalazioen eskemak.
- Ekipo guztien funtzionamendu eta ezaugarri teknikoaren eskuliburuak.

3.2.6 Hirugarrenek egindako konponketak edo zerbitzu tekniko ofizialetan egindakoak.

Zenbait konponketak hirugarrenen parte-hartzea edo ekipoak marka bakoitzaren zerbitzu teknikoetara bidali beharra ekarriko du. Horren berri eman beharko zaio lehenik Eusko Legebiltzarreko Mantenimendu Zerbitzuko buruari, konponketa horren egokitasuna azter dezan edo, sektoreko eboluzio teknikoak kontuan izanik, abantaila gehiago eskainiko dituzten prestaziodun ekipoek lehengoa ordezkatzea.

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA.

Kontratuaren iraupena, kontratua gauzatzen denetik zenbatzen hasita, bi urtekoa izango da, eta kontratua luzatzeko aukera egongo da, bi aldeek komenigarritzat joz gero. Luzapenak urtebetekoak izango dira. Hala ere, kontratuaren iraupena, luzapenak barne, ezin da guztira lau urte baino gehiagokoa izan.

5. ZERBITZUAREN GARAPENA

5.1 Planifikazioa.

Eusko Legebiltzarrean gauzatzen den jarduera www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org webgunean argitaratzen da. Bertan, ondorengo asteko jarduera eta bere gorabeherak kontsulta daitezke. Gainera, egin beharreko lanetan eragina izan dezaketen aldaketei dagokienez, erakundeak berak emango dio horien berri enpresari ahalik eta bizkorren, bi aldeek eraginkortzat jotzen duten bidea baliatuz. Horrela, bada, 2. eranskinean ezarritako espezifikazioekin bat eginez, eman beharreko zerbitzuaren beharrak zehazten dira. Azterketa orokorrak eta konponketak Mantenimendu Zerbitzuak esandakoarekin bat eginez planifikatu beharko dira.

5.2 Erantzukizun teknikoa.

Mantenimendu Zerbitzuak egunerokoan dauden jarduera eta arazo guztien berri etengabe izate aldera, esleipena jasoko duen enpresak arduradun tekniko bat izendatuko du, erdi-mailako teknikari baten prestakuntza izango duena eta lehiaketaren xede den arloan gaitasuna duena. Pertsona hori izango da koordinazioa behar duten ekintzetarako bozeramaile bakarra.





Teknikari horren zeregin nagusiak, ondoko hauek izango dira:

- Erakundearen irudi eta soinu teknikariarekin, egin beharreko lanak koordinatzea.
- Mantenimenduko Burutzari hiru hilean behin eman behar zaizkion txosten teknikoak prestatzea.
- Kontratututako jarduerak kontrolatzea eta horiei jarraipena egitea.
- Planteatutako jardueren garapenean parte hartzen duten langileen segurtasun- eta higienepiana kudeatzeaz arduratzea.
- Egin beharreko jardueren asteko *planninga* egitea.

6.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Kontratuaren esleipena egiteko, ondoko irizpideak baloratuko dira:

- Prestaketa barne dela, 6 orduko osoko bilkuraren prezioa:** Puntuazioa: 25 puntu. Formula: $25 \text{ puntu} \times (\text{Eskaintza ekonomikoenaren balioa} / \text{Eskaintzaren balioa})$
- Prestaketa barne dela, 3 orduko batzorde-bilkuraren prezioa:** Puntuazioa: 25 puntu. Formula: $25 \text{ puntu} \times (\text{Eskaintza ekonomikoenaren balioa} / \text{Eskaintzaren balioa})$
- Memoria eta lan-egitasmoa:** Puntuazioa: 40 puntu. Aurkeztutako memoriaren edukiaren kalitatea eta balio teknikoa. Bereziki baloratuko dira lanaren antolaketarako proposamenak eta jarduketan ezarpenerako metodologia. Orobat, taldeko kideen curriculum profesional frogagarria, instituzioan egingo lituzketen zereginen esparruan: prestakuntza-ikastaroak, titulazio teknikoa eta abar.
- Hobekuntzak.** Puntuazioa: 10 puntu. Enpresak klausula teknikoen agiriko baldintzen gainean proposa ditzakeen hobekuntzak, kontratatu behar den zerbitzuaren kalitatea eta edukia hobetuko dituztenak: Hobekuntzak administrazio-klausula berezien agiriko IX. eranskinaren arabera aurkeztu beharko dira. Ez da onartuko administrazio-klausula berezien agiriko IX. eranskinean jasota ez dagoen hobekuntzarik.

Kontratazio-organoak, esleipena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen irizpen eta txosten guztiak jaso ahal izango ditu.

7. LANEN ORDAINKETA.

Lanak ordaintzeko osoko bilkura eta batzordeen prestaketarako prezio finkoa ezarriko da. Osoko bilkuren eta batzordeen grabazioak fakturatzean, benetako grabazioko eta tekniko bakoitzeko orduko prezioa izango dira kontuan.

Esleipenaren prezioak kontratuaren lehen urtea betetzen denean berrikusiko dira eta aurreko urtean Euskadin kontsumorako prezioen indizearen arabera izandako bariazioa aplikatuko zaie, betiere, Espainiako Estatistika Institutuaren Arabako Delegazioak emandako ziurtagiriaren arabera. Modu berean jokatu da kontratuaren luzapena gertatzen denean.





Jarraian zehazten diren prezioek ez dute barne hartzen balio erantsiaren gaineko zerga:

Osoko bilkuren aretoan eta batzordeetan grabazioak egiteko lizitazio-tasak:

1. Osoko bilkuretarako prestaketa-lanak 320,00 €/Osoko bilkura
2. Batzordeen prestaketa-lanak 90,00 €/Batzordea
3. Benetako grabazio-orduko fakturazioa (teknikari bakoitzeko)... 39,00 €/teknikari-ordua





1. ERANSKINA: KONTRATUAREN XEDE DIREN EKIPO ETA INSTALAZIOAK

OSOKO BILKURAREN ZERBITZURAKO AUDIO ETA BIDEO EKIPOAK

KAMERAK ETA ROBOTIKA:

Ondokoak dira Legebiltzarrak dituenak: PANASONIC markako AW-HE870E kolore digitaleko lau kamera trinko, 2/3" IT x 3 CCD, 14 bit dituen A/D-rekin. Horiei dagozkien PANASONIC AW-CB400L kameraren urrutiko kontrol-unitateak. HDTV urrutiko kontrolerako lentea, 2/3", HD xede anitzeko kamerarako, motorizatua. Zooma x 20. Foku-distantzia: 8.5 – 170 mm. Canon KJ20x8.5KTS. Sony markako eta xede anitzeko bi HD kamera, 3CCD HAD eta 1/3". Zoom lentea x 12, 48x zoom digitala. Carl Zeiss Vario-Sonnar

Kamera aurreratuen kontrolerako RADAMEC HK431 eta HK421 sistema, lau kamerarakoa, euskarri, interface eta kamera-bururako kontrol-unitatea ere badituztenak. SONY markako kamerentzako SONY RM-BR300 posizionamendu-kontrola.

Hori guztia, kamera-buruekin konektatzeko beharrezkoa den elektronika duen kontrol-panelarekin lotuta dago.

KONTSOLA:

16 sarrerako HD/SD zuzeneko kommutadorea. Pantaila anitzerako irteera bikoitza. Koadro-sinkronizaziodun 17 sarrera ditu; horietatik zortzik kolore-zuzenketa dute eta lauk *Up convertera*. PiP bikoitza eta DSK bikoitza. Pantaila anitz bikoitza, 20 seinale ikusi ahal izateko. PANASONIK AVH-S450E. Pinnacle DEKO 550 karaktere-sortzaile digitala.

EKIPOAK:

MONITOREAK: 42"ko 2 Panasonic LCD, BT-S1000 motako 10"ko 4 Panasonic; 2 ALBIRAL TFT 15"; 4 ALBIRAL TFT 9"

AUDIOA: SOUNDCRAFT M12 estereo nahasketa-mahaia, 12 sarrera-kanal dituen. Audio-banagailuak: 19"-ko *rackean* gordetako TL-200 serieko Pesa AD-2000 motakoak.

BOSCH markako DCN konferentzia-sistema, 102 eserlekuetarako ondokoak eskaintzen dituenak: identifikazio-txartelen irakurgailuak, botazio elektronikoa eta aldi bereko itzulpena, BOSCH markako kontrol-softwarea duen ordenagailu batek kontrolatua. Lehendakaritzaren mahaiak ondoko aplikazioetan jarduteko aukera eskaintzen duen pantaila du: botazioak, presentzia, ateaq itxia, denboren kudeaketa, botazioen DCNaren *displaya*.

Aldi bereko itzulpen-sistema, BOSCH markakoa, bilkura-aretoaren goiko aldean kokatutako transmisorez osatutako infragorrien bidezkoa, zeinek bilkura-aretoan kokatutako argailu mugikorretara seinalea igortzen duten.

Sistemak hiru pantaila dauzka, bi 103"koak eta bestea 62"koa, eta horietan botoen aurkezpen sinoptikoa egiten da, emaitza numerikoak eta legebiltzarkide bakoitzaren boto-aukeraren adierazpen geografikoa emanez.





BIDEOA: Sony markako HD duten lau DVD ekipo dago; Panasonic markako lau grabagailu-erreproduzigailu; Pioneer markako DVD grabagailu profesional bat eta DVCAM formatuko bi ekipo.

Pesa SD-2000 bideo-banagailuak, TL-2000 seriekoak.

BESTE ZENBAIT: Uhin-formaren monitorea eta bektoskopioa, Philips markakoa, PM-5665 eta PM-5667 modeloak, hurrenez hurren, seinale analogikorako; eta Tektronix WFM 601A ekipoa SDI seinalerako.

Videotex markako sinkronismo-sorgailua, VSG-201D modeloa.

Pesa markako bideo eta audio aurrehautatzailea, 16x2 modeloa, 16 sarrera eta 2 irteera dituen, kutxaduna, 19"ko rack baterako tokiko kontrola eta elikatze-iturria.

A/V grabaziorako AVID sistema bikoitza, hp-8200 Pc-aren bidezkoa, tokiko eta urrutiko disko gogorren bankuetan grabazioak egiteko.

1, 2, 3 ETA 4*. BATZORDE ARETOEN ZERBITZURAKO AUDIO ETA BIDEO EKIPOAK

Aretoan bertan kokatutakoak:

KAMERAK, ROBOTIKA ETA IKUS-ENTZUNEZKO SISTEMA.

SONY CXC-950P koloreko hiru kamera, 3CCDdunak. Optikak CANON markakoak dira 15x (J15), foku-luzera 9,5-143 mm bitartekoa.

Kamera aurreratuen kontrolerako RADAMEC sistema, *interface* eta kamera-bururako kontrol-unitatea ere badituen, bi kamerarako. Mugimendu-kontrol sinpleagoa hirugarren kamerarako, DENNARD markakoa.

Aurkezpenetarako, 71"ko LG Plasma full HD pantaila. Lehendakaritzarentzat, 14"ko 2 TFT monitorea, SONY markakoak; eta itzulpen-kabinetan, dagozkion monitorea.

Aretoan bertan, armairu batean, Pc terminal bat dago DCN sistemaren parte gisa, botazioak pantailan aurkezteko; halaber, gelako megafonia eta abar bertan gordetzen dira.

Aretoetan BOSCH markako DCN konferentzia-sistema trinkoak daude, megafonia, aldi bereko itzulpena, identifikazio-txartelak eta beste zenbait prestazio eskaintzen dituztenak.

Beste gela batzuetan daudenak:

EKOIZPEN KONTSOLAK.

1. eta 3. batzorde-aretoen ekoizpen-kontsolak kokatuta dauden kontrol-gela bat dago. Altzari horiek ondoko ekipoak dituzte:

*VIDEOTEK Prodigy markako eta PAL sistemako 8 sarreradun bideo-nahasgailua.

*Posizionamendu-kontsola eta kamera-doikuntza, RADAMEC eta DENNARD markakoak.





* 9"ko lau SONY monitore, Panasonic markako 14"ko aurrebistako monitore bat eta programa-irteerarako 14"ko SONY monitore bat.

*Bi VHS bideo, bi DVCAM grabagailu, SONY markakoak biak.

* Pioneer markako DVD grabagailu profesionala

* Sony markako DVD grabagailua, RDR-HX710 modeloa.

* Pesa markako 8x2 konmutazio-matrizea.

*Presa markako audio- eta bideo-banagailuak, TL-2000 seriekoak.

*DCN sistemaren kontrola, Philips markako software espezifikoa duen Pc baten bidezkoa.

*AVID audio eta bideoko grabazio-sistema, Pc bidezkoa, 1. eta 3. aretoetan.

BIDEOA:

SONY markako lau DVD grabazio- eta erreproduzio-ekipo daude.

DVCAM formatuko eta BETACAM formatuko bi ekipo, SONY markakoak biak.

Pesa SD-2000 bideo-banagailuak, TL-2000 seriekoak.

BESTE ZENBAIT:

Uhin-formaren monitorea eta bektoreskopia, Philips markakoa, PM-5665 eta PM-5667 modeloak, hurrenez hurren.

Pesa markako sinkronismo-sorgailua, VG-6140 modeloa.

Pesa markako hiru bideo eta audio aurrehautatzaile, 16x2 modelokoak, 16 sarrera eta 2 irteera dituztenak, kutxadunak, 19"ko *rack* baterako tokiko kontrola eta elikatze-iturria.

***2. aretoari buruzko oharra:** Areto honek ez dauka berezko proiektzio-sistematik. Batzordeen jarraipena egiteko erabiltzen da, eta beraz, 50"ko pantaila bat kokatu da bertan.

***4. aretoari buruzko oharra:** Gela honetako kontrol eta ekoizpena, osoko bilkuren kontrolerako ekipoekin egiten da, azken horiek 2. solairuan daude kokatuta.

Era berean jakinarazten da, Legebiltzarraren egoitzan sei telebista-kanal dagoela, une bakoitzean aurkeztu nahi den bideo- eta audio-seinaleak –aretokoa zein itzulpena– eman ahal izateko.

Ekoiztako audio- eta bideo-seinaleak legebiltzar-etxe osora zabaltzen dira, beheko solairuan (prentsa-aretoan) kokatutako informazio-komunikabideetara, bigarren solairuko irrati-kabinetara, T. Moro aretora eta sotoko unitate mugikorren konexio-postura.





2. ERANSKINA: LAN PROZEDURAK.


A2.1 Instalazioaren eta audio- zein bideo-ekipoen mantenimendu-lanak

Instalazioa osatzen duten ekipoak fidagarritasun handikoak dira; baina, bestalde, horien konponketa fabrikatzaileek ezarritako bideetatik kanpo egitea zaila da ekipoon maila teknologikoa kontuan izanda. Hortaz, labur esanda, irregulartasunak hauteman, konponketak planifikatu eta hondatutako aparatuentzako alternatibak topatu beharra dago. Arazoa kritikoa da osoko bilkuren aretoan gertatuz gero. Funtzionamendu-fidagarritasun handiena lortzeko, ondoko jarduerak egiten dira:

1. Bilkurak egiten diren artean grabazio-gelan egoteko, zuzendaritza teknikoko eta mantenimendu arloko perfila duen teknikaria kontratatzea. Teknikari horren egitekoak ondokoak izango dira: kabinako zein instalazio osoko ekipamenduaren funtzionamendua ikuskatzea, gorabeherak hautematea eta Legebiltzarreko Mantenimendu Zerbitzuari horien berri ematea. Zerbitzu horretan teknikari kualifikatu bat dago eta harekin batera egingo dira zuzenketa-ekintzak.
2. Ekipo guztiak prestatzea, osoko bilkuren bezperan ekipoak eraginkor utziz. Legebiltzarkideen eserlekuetan entzungailuak jarriko dira (bilkura amaitzean jasoko direnak) eta seinalea toki espezifikoetara bideratuko da. Batzorde-aretoetan, bilkura hasi baino ordu bete lehenago egotearekin nahikoa izango da prestakuntza-lanak burutzeko. Osoko bilkurari dagokienez, prestaketa-lanak bezperan egiten direnez, bilkura hasi baino ordu bete lehenago jarriko da martxan ekipamendua; eta Legebiltzarraren ekipamenduari zein komunikabideei laguntza emateari dagokionez sor daitezkeen beharrei erantzuna emango zaie.
3. Bilkura-aldiak hasi aurretik azterketa orokorrak. Bilkura-aldia hasi aurretik, aurrerapen nahikoarekin, azterketa orokorrak egingo dira, geroago definituko den mantentze-lanetako plana osatuz.
4. Erakundeak material-stocka dauka. Esleipena jasoko duen enpresak aholkularitza emango dio Eusko Legebiltzarrari instalazioaren funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak direnei dagokienean.

Prebentzioko mantentze-lanetako planak, gutxienez, ondoko jarduerak jasoko ditu:

- Konektoreak eta kontaktuak garbitzea (urtean behin).
- Kameren optika guztiak garbitzea (sei hilean behin).
- Ekipo guztiak kanpotik garbitzea (sei hilean behin).
- Estantkoak ez diren ekipoen barnealdea garbitzea (urtean behin).
- Buruak garbitzea (urtean behin). Haizagailudun potentzia-etapetan, iragazkiak garbitzea (sei hilean behin).
- DVD eta AVID grabagailuen disko gogorra hustea (hilean behin).
- Haizagailudun etapen iragazkiak aldatzea (urtean behin).
- Entzungailuak eta mikrofonoak aztertzea (bilkurak hasi aurretik).
- Hartzaile infragorrien funtzionamendua egiaztatzea (hilean behin).
- Emisore infragorrien funtzionamendua egiaztatzea (bilkura hasi aurretik).
- Botazio-sistema egiaztatzea (bilkura hasi aurretik).
- Ordutegi-sistema egiaztatzea (bilkura hasi aurretik).
- Eserleku guztiak aztertzea, txartelak aktibatzea eta botazio-kontrola aztertzea (bilkura hasi aurretik).
- Lehendakariaren ordenagailuan erantsitako sistemen kudeatzailea egiaztatzea (bilkura hasi aurretik).
- Audio- eta bideo-sistemak ekualizatzea, seinale-maila eta -kalitatea doitzea (urtean behin).





Bideo-monitoreak doitzea (urtean behin).

Kameren posizionagailuak doitzea eta koipeztatzea (urtean behin).

Horrez gain, ekipo bakoitzari fabrikatzaileak gomendatutako mantentze-lanetarako plana aplikatuko zaio, horrek aurreko zerrendan aurreikusi ez diren jarduera eta maiztasunak badakartza ere.

A2.2 Lan-prozedurak eta errutinak.

2.2.1. Osoko bilkura prestatzea

1. Ekipoen azterketa orokorra egitea, osoko bilkuren bezpera egunetan ekipook eraginkor utziz. Horrek berekin dakar DCN ekipoa eserleku bakoitzean frogatzea, bai eta Lehendakaritzaren mahaian ere. Botazio-sistema egiaztatzea. Osoko bilkuren aretoko erlojuak sinkronizatzea.
2. Kamerak, monitoreak, nahasketa-mahaiak, robotika eta grabazio-sistemak (zintak prestatuz) egiaztatzea. Legebiltzarkideen eserlekuetan entzungailuak jarriko dira (bilkura amaitzean jasoko direnak) eta seinalea toki espezifikoa bideratuko da.
3. Prentsa-aretoetan, irratietan, telebistetan eta T. Moro aretoan audio- eta bideo-seinaleak egiaztatzea.
4. Prestakuntza-lan horietarako 4 orduko tarte behar da; tarte horretan egingo dira, Mantenimendu Zerbitzuko teknikarien laguntzarekin, doikuntza eta konponketa txikiak ere. Kontratutako enpresarentzat nahikotzat jotzen da osoko bilkura hasi baino ordu bete lehenago bertan izatea.
5. Osoko bilkura amaituta entzungailuak eta itzulpen-ekipoak kenduko dira. Era berean, ekipamendua, zintak, DVDak eta abar, Mantenimendu Zerbitzuak adierazitakoarekin bat eginez utzi beharko dira.

2.2.2. Batzordeak prestatzea

1. Batzordeei dagokienez, teknikariek aretoa aztertu eta martxan jarriko dute. Mahaiko eta kazetarien inguruko audio-ekipoak (DCN) egiaztatu egingo dira, bai eta bideoa, bideokamerak eta robotika ere.
2. Aldi bereko itzulpen-sistema egiaztatuko da. Aretoko seinaleak banaketa matrizeetan bideratuko dira.
3. Une oro, Mantenimendu Zerbitzuko teknikari baten laguntza jasoko du enpresak. Kontratutako enpresarentzat nahikotzat jotzen da bilkura hasi baino ordu bete lehenago bertan izatea.

2.2.3. Erakundearen seinalearen errealizazioa.

Erakundearen seinalea sortzean kontuan izan beharreko arau orokorrak ematen dira orientagarri izan daitezkeen. Hona hemen jarraibide horiek:

- errealizazioari hasiera emango zaio bertaratuko direnak gelan sartzean, eta ez lehendakariak bilkurari hasiera ematen dionean. Orokorrean, esan liteke, deialdian ezarritako ordua baino bi minutu lehenago izaten dela hori;
- errealizazioari amaiera emango zaio bilkura amaitu eta bertaratu direnak aretotik irtetean.





Legebiltzarrak komunikabideei bi seinale emango die:

Seinale finkoa: hizlariaren plano ertaina, atriletik.

Seinale errealizatua.

Seinale bikoitz horri esker, seinale errealizatuak ez du zertan hizlariaren plano ertain estatikoa izan.

Errealizazio profesionala egingo da, hau da, enkoadraketak zainduko dira, plano batetik bestera koherentziaz pasatuko da, emanaldia arina izan dadin eta lantzen diren gaien inguruko interesari eutsi diezaion beharrezkoak direnak egingo dira, egiten den botazio bakoitzeko emaitzak errealizatutako seinalean agertu beharko dira. Irudiak modu aseptikoan hartuko dira eta irudinahasgailu baten bitartez, irudiak hautatu eta nahastuko dira bilkuran zehar; era horretan, hautatutako irudien jarraitutasun sekuentzial eta narratiboa lortuz.

Programaren seinalea irudiak hartu eta aldi berean transmititu egingo da. Horrek irudiak zuzenean hartzea eta horiek modu narratiboan lantzea eskatzen du, hortaz, errealitatea erakustean ez dago gelditzeko edo errepikatzeko aukerarik. Nahasgailutik irteten den seinalea transmititzen denean, hainbat formatutako euskarri bideografikotan erregistratzen da; eta erakundearen fitxategietan memoria eta dokumentu gisa geratuko dira horiek.

Kontsultarako lan-dokumentu izanik, ahalik eta informazio gehien jaso beharko dute: presentzia, entzuteak, erreakzioak, botazioak, gertakariak, pausak eta abar.

2.2.4. Grabazio-bankuetako DCN sistema abiaraztea, AVID disko gogorrekin eta bestelako ekipamendu espezifikorekin.

Informazio zehatz hori esleipena jasoko duen enpresari emango zaio.

